**_EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA_**
*Día internacional las mujeres*

MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

# Lana, enplegua eta emakumeak

## Propuestas desde la economía feminista




### 2014ko martxoaren 7a

*Escuela Navarra de Teatro, Iruñea*

## **Egitaraua**/Programa

| | |
|---|---|
| **10:00.** | **Sarrera** / Introducción |
| **10:15.** | **Hitzaldia /** Conferencia **ASTRID AGENJO** |
| **11:00.** | **Lana, enplegua, soldata eta emakumeak** (Jone Bengoetxea/Adolfo Muñoz Txiki) |
| **11:30.** | **Elkarretaratzea** / Concentración |

# *Astrid Agenjo eta Cristina Carrasco: "Ekonomia feminista erabateko apurketarako pentsamendu bat da"*

**Soraya Gonzalez Guerrero,** *Diagonal-en argitaratua 2013/11/07*

Urriaren 3, 4 eta 5ean 300 pertsona inguru interes amankomun batekin elkartu ziren Carmonan: Ekonomia feministari buruz hitz egitea. Ezagutza teoriko eta praktikoa, elkarrizketa bidez, akademian eta beste hainbat lekutan nola eraikitzen den erakusteko leku bikaina. Ekonomista antolatzaileetako birekin hitz egin dugu, Astrid Agenjo Calderón, hasi berria, eta Cristina Carrasco, beteranetako bat.

**Zer ekarpen egiten du ekonomia feministak krisia ulertu eta alternatibak bilatzeko?**

CRISTINA CARRASCO: Ekonomia feminista mahai gainean jartzen ari dena da sistemarekin erabat apurtuko duen pentsamendu bat. Kapital eta bizitzaren arteko oinarrizko kontraesanaz hitz egiten dugunean, baliabide eta pertsonen esplotazioan oinarritutako kapital metatzeaz jarduten dugunean, guztia birplanteatzen ari gara. Ikuspuntu amankomun franko ditugu ekonomia ekologistarekin, ekonomia naturan eta zaintzan oinarritzen dela diogu. Aldarrikatzen duguna da ekoitzi eta kontsumitzeko moduen aldaketa eta gizakiaren erreprodukziorako beharrezko diren lanen banaketa.

ASTRID AGENJO: Sistema ekonomikoaren osotasuna da zalantzan jartzen duguna, sistema kapitalista heteropatriarkala, arrazista eta koloniala. Metaketaren logikak bizitza erasotzen du esparru guztietan eta erantzuna ezin da bakarra izan. Horrek dakar begirada asko partekatzeko beharra, akademiatik haratago, akademian gauzak bakardadean egiteko joera baitago. Ezagutza eta ekintza amankomuna eraiki behar dugu, aniztasunetik, elkarrekin.

**Zein balorazio egiten duzue akademia eta aktibismoaren arteko artikulazioaz?**

C.C.: Aurreko kongresuetan ematen zen artikulazio hau, nahiz eta esplizituki ez izan. Akademiako emakumeak inoiz ez gara gehiengoa izan, beti jende oso desberdina etortzen zen. Baina kongresu hau esplizituki hala antolatu zen. Gainera ez gara akademikoak soilik, Bartzelonatik gatozenak Ca la Dona gizarte zentroan aritzen gara. Nire ustez akademiak libreki pentsatzeko aukera gutxiago dauka, mugimenduetatik pentsatzeko gaitasun handiagoa dago. Baina akademian pentsatzeko ordaintzen digute, horregatik dugu denbora gehiago gauzak antolatzeko. Uste dut hartueman ona dagoela akademia eta aktibismoaren artean. Ea hala den beti.

A.A.: Kongresu honen antolakuntza engranajean egon diren lau batzordeak ez dira konpartimentu isolatuak izan, elkarrizketa eta tentu handia izan dugu ez zitezen mahai paralelotan gai desberdinei buruzko gaiak jorratu. Nik ez dut beste era batera ikusten. Ezagutza eta ikasitakoak kalera jaitsi behar dira. Esperientzia gisa kontatu dezakedana da Setas Feministas taldea (Sevillako M15etik jaiota) azokara atera ginela emakumeei galdetzera krisiak beraiengan zuen eraginaz, eta pentsatu gabe ekonomia feministaren praktika indartsu bat egiten ari ginen, emakumeek ez baitzuten krisiak beraiengan zuen eraginaz hitz egiten. "Nik bizitza guztia krisian daramat eta", esaten ziguten. Azken finean, kalea da eguneroko bizitza kudeatzen den lekua.

## *ASTRID AGENJO CALDERÓN*



*Mi nombre es Astrid Agenjo Calderón, feminista y economista, ámbitos que se mezclan no solo en lo que respecta a las investigaciones en las que participo, sino también a mi forma de entender el mundo y el activismo. Mi especialidad es la Economía Internacional y el Desarrollo (máster en la UCM, 2010) y actualmente realizo el doctorado en la Universidad Pablo de Olavide de Sevilla, centrándome en el análisis de las crisis, el papel del estado, los derechos económicos de las mujeres y los usos del tiempo. Allí colaboro en la coordinación del Máster universitario "Género e Igualdad" y formo parte del grupo de investigación EcoEcoFem (Economía Ecológica, Feminista y Desarrollo). De forma paralela, he trabajado en cooperación técnica en Alemania con proyectos en América Latina y el Caribe, y en la Cooperación española como consultora independiente.*

**Eta unibertsitatean, zer nolako onarpena du ekonomia feministak? Nork markatzen du agenda?**

C.C.: Akademian ez digute jaramonik egiten, lortu ditugun apurrak esfortzu handien fruituak izan dira. Hor dabiltzan emakume askok kontu askori uko egin behar izan diote. Ekonomia feministan katedra bat lortzea ezinezkoa da, baina ez dut uste hori denik gure lehentasuna. Zenbait ikasgai lortu ditugu, baina beti hautapenezkoak. Masterretan errazagoa da. Baina ekonomian zailagoa, eta are gehiago orain ekonomia neoklasikoak akademia osoa menderatzen duen honetan. Ikerketa gaiak? Egin ditzakegunak, ez dago finantzazio bide argirik. Emakumearen Institututik finantzazioa ateratzen denean eskatzen dugu eta bakoitzak bere lan ildoarekin jarraitzen du (politika publikoak, aurrekontuak, lana, estatistiken azterketak beste ikuspegi batetik, hor dezente egin dugu aurrera). Badaude finantzatuak diren gaiak sistemarekin apurtzaileak ez direlako: kontziliazioa, berdintasuna... partxe txikiak dira. Guk ekonomia feminista ulertzen dugun moduan planteatzen badugu oso zaila da diru laguntzarik jasotzea.

A.A.: Nik interes handia sumatzen dut ekonomia feministak akademian egiten duen lanarekiko. Seguruenik testuinguruak laguntzen du. Nire tesia orain bi urte hasi nuen, beka bat daukat zorionez. Baina ikusten dut geroz eta emakume gehiagok sartzen dutela ekonomia feminista beren tesietan, mugimenduetan duten esperientziarekin nahastuz eta diru laguntzarik jaso gabe. Bai, gauzak egiten ari dira. Hainbestetan aipatzen dugun sareen eraikuntza egi bihur daiteke. Ni Ep&Do behatokian nabil, Pablo Olavide Unibertsitateko 20 ikerlari eta irakasle gara, eta gure esperientziak batu ditugu indarra egiteko. Ikuspegi akademikoagoa dauka, baina beti begiratzen dio trebakuntza eta mugimenduetan parte hartzeari. Abiapuntua besterik ez da, baina gogo askorekin gabiltza.

**Kongresu honetan belaunaldien arteko elkarrizketa bat eman da, eta hori azpimarratzekoa da. Batzuetan beteranoenak beren lubakietan sartzen dira, eta ez dute nahi gazteak gauzak eztabaidatzera etortzea. Horrek zailagoa egiten du elkarrizketa, erreleboa.**

C.C.: Tartean oso ongi funtzionatu ez zuen belaunaldi bat egon zen. Baina orain jende gazte asko dago, ideia ugarirekin. Guk 30 urtetako esperientzia ematen dugu eta beraiek belakiak bezala dira. Gainera beste modu batera pentsatzen duten mugimendu berrietan dabiltza, akaso apurtzaileagoak dira. Orain unibertsitateetan ez dagoenez apenas plazarik, gazte jende askok bizitza unibertsitatetik kanpo bilatzen du. Denbora bat pasata jende gehiago egongo da kanpoan akademian baino, kontua da ekonomia feministaren pentsamenduak aurrera egitea. Hau akademiatik kanpo emango da. Nola? Ez daukat ideiarik, belaunaldi bakoitzak bere mekanismoak bilatuko ditu.

A.A.: Oso ongi hartua sentitu naiz, beste bat gehiago banintz bezala. Ez dut uste pulpiturik dagoenik, benetako elkarrizketa ari da ematen.

# *Sexo y género: ¿De qué estamos hablando?*

**Roland Pfefferkorn,** *Viento Sur 2014/02/20*

¿Porqué se ha desarrollado una campaña denunciando una supuesta “teoría del género”, instigada por redes ligadas para unos a grupos de extrema derecha, para otros a corrientes religiosas, cristianas o musulmanas? ¿Qué está en juego en la diferenciación entre sexo y género?

La polémica expresión “teoría del género” jamás ha sido utilizada por los sociólogos o los investigadores de otras disciplinas por la sencilla razón de que no existe tal teoría de forma unificada. El género es, en primer lugar, una categoría o un concepto que permite pensar la traducción social de un dato natural, el sexo biológico. Es también un campo de estudio, el conjunto de los estudios que versan sobre las relaciones entre los hombres y las mujeres, que ha sido caricaturizado por quienes han lanzado los recientes rumores, que actúan a favor de la descalificación de tales investigaciones. No es ni una doctrina ni una ideología, es un campo de trabajo que se pregunta sobre las representaciones sociales ligadas a las diferencias de sexo.

Esta campaña de denuncia ataca ante todo a la igualdad, más en particular a la igualdad entre hombres y mujeres, pero también a los derechos de las minorías sexuales. El objetivo de sus promotores es deslegitimar conocimientos científicos, en particular los producidos por las ciencias sociales, e incluso poner en cuestión las finalidades de la escuela, en teoría el lugar por excelencia en el que los enseñantes promueven la igualdad y el respeto mutuo, donde los niños aprenden a respetar las diferencias (cultural, sexual, religiosa) y a reflexionar sobre los estereotipos asociados a los sexos biológicos. [...]

Más en general, son todas las formas de emancipación, individual y colectiva, en primer lugar la de las mujeres, las que son atacadas por esta campaña retrógrada. Desde el punto de vista de la Ley, en Francia como en numerosos otros países, se supone que las mujeres están actualmente en igualdad con los hombres, lo que estuvo muy lejos de ser así durante mucho tiempo. El derecho a voto solo fue obtenido en 1944 (en Suiza, en 1971), algunos decenios después de las campañas realizadas por las feministas del fin del siglo XIX y del comienzo de comienzos del siglo XX, entonces calificadas de “sufragistas”.

En el curso de los años 1970-1976 la segunda ola del movimiento de mujeres hizo posibles avances en cuanto al derecho de las mujeres a disponer de su propio cuerpo: en concreto, permitió hacer efectivo el derecho a la contracepción, votado en Francia en 1967, y arrancar la despenalización de la interrupción voluntaria del embarazo votada por primera vez en 1975, bajo condiciones y a título provisional, por cinco años y, definitivamente, a finales de 1979. Pero los ataques a lo conseguido son algo que hay que temer siempre. Contribuye a ello el acoso permanente puesto en marcha por los grupos anti derecho al aborto, tanto en Francia como en otras partes, o los ataques contra el derecho al aborto que han llevado a retrocesos importantes en varios países, incluso recientemente en España.

El movimiento de mujeres ha contribuido igualmente a la modificación de los regímenes matrimoniales y parentales. La escolarización masiva de las niñas, el desarrollo de la actividad profesional de las mujeres y el control de la fecundidad han participado estructuralmente en la transformación de las relaciones entre mujeres y hombres durante los últimos decenios. Sin embargo, persisten desigualdades en muchos terrenos, tanto en la esfera privada como en el espacio público o la actividad profesional. [...]

El corpus de las categorías de pensamiento que se constituyó durante los años 1970-1990 es muy rico. En una primera fase aparecieron los conceptos de patriarcado, de modo de producción doméstico y de división sexual del trabajo, sin contar los de sexo social, sexage, classe de sexe. Posteriormente, los conceptos de género y de relaciones sociales de sexo marcaron el paisaje. Pero esta sociología crítica no ha gozado de los focos mediáticos en comparación con el feminismo esencialista que tuvo gran eco en la prensa y fue aclamado por el Vaticano. La diversidad de las categorías tiene que ver con el carácter multidimensional de la opresión que remite a la vez a la explotación, a la dominación, a la discriminación y a la estigmatización de las mujeres.

Las investigadoras feministas han partido de la idea de que los hombres y las mujeres son categorías que proceden de una traducción social de un dato natural, lo que explica en gran medida las variaciones encontradas en el tiempo y en el espacio. Los trabajos anteriores privilegiaban planteamientos en términos de “condición femenina”, expresión que remite a un estado predeterminado, o de “roles de sexos” esperados o prescritos, en particular en lo que concierne a los “roles conyugales”. La sociología de la familia estaba fuertemente impregnada de concepciones normativas: la familia nuclear standard se basaba en la complementariedad de un rol instrumental correspondiente en su seno al hombre y de un rol expresivo que correspondía a la mujer. Al primero se le suponía asegurar la relación con la sociedad global y a proveer mediante su actividad profesional al mantenimiento de los miembros de la familia. La segunda estaba encargada de asegurar mediante su trabajo doméstico y su presencia permanente el funcionamiento cotidiano de la familia y la socialización de los hijos. Los a priori naturalistas sobre los que se basa esta visión serán identificados igual que las relaciones de poder que subtiende esta autodenominada “complementariedad de los roles”.

En Francia, el concepto de relaciones sociales de sexo fue elaborado en fuerte conexión con el de división sexual del trabajo. Ésta remite primero a la constatación de la asignación de los hombres y de las mujeres a tareas diferentes, tanto en la esfera profesional como en la esfera doméstica. El concepto de relaciones sociales de sexo apunta a articular relaciones de sexo y relaciones de clase y a subrayar la dimensión antagónica de las relaciones entre la clase de los hombres y la de las mujeres, sin olvidar la centralidad del trabajo. Éste es la palanca de la dominación que se ejerce sobre ellas en el marco de las relaciones sociales de sexo, pero también, y al mismo tiempo, el de su emancipació.

Cuando el término género [gender] hizo su aparición en 1972 en el contexto feminista anglosajón remitía primero al sexo social por oposición al sexo biológico, pero muy rápidamente el género fue pensado como un sistema y luego como una relación social. Es la razón por la que siempre debe estar en singular. En el plural el concepto se vacía de su dimensión crítica y funciona simplemente como un vago sinónimo pseudo erudito de sexo.

Es sobre todo en cuanto a relación de poder o de relación social como el concepto de género se ha impuesto en las ciencias sociales. La polisemia del concepto explica a la vez su éxito y sus límites. Por ejemplo, en ciertos usos, cuando se olvida o incluso se niega la dimensión relacional, el género llega a borrar la dimensión desigualitaria y conflictiva de las relaciones entre hombres y mujeres. Y cuando el planteamiento de género es planteado sin tomar en cuenta las demás relaciones sociales, en particular las clases sociales de pertenencia de los hombres y las mujeres, este planteamiento puede contribuir a la ocultación de las clases. El olvido o el encubrimiento de las clases pueden así suceder a la denegación anterior de los sexos sociales.

El género es pues, en primer lugar, un concepto que reposa sobre todo un corpus de investigaciones y es también un campo de estudios, los estudios de género, en el que cohabitan planteamientos y posiciones muy diversas que intentan pensar la opresión de las mujeres y proponer medios para ponerla fin. Es precisamente esto lo que tanto inquieta a quienes han lanzado esta campaña de denuncia y de desinformación.